

Oalentzeroren lagunak elkartea

Duela hiru hilabete sortu da Oalentzeroren Lagunak izeneko elkartea berri bat, bilduz bere baitan Oalentzeroren tradizioa eremaiten duten Iparraldeko presuna batzu. Zonbait urte hauetan beti eta gehiago aipatzen eta hedatzen ari da tradizio hori eta presuna horien griña da bakotxaren esperientzien eta gogoeten trukatzea, Oalentzeroren izpirituan hedapen horren sustatzeko eta hedatzeko.

Elkartean daude Iparraldean ikazkinarena egin dutenak eta haien laguntzaileak. Hauek beti eta gehiago galdeginak dira Ikastola, eskola elebidun publiko eta pribatuetan eta ere enpresa haundietako komiteen eguberri garaiko bestetan, zahar etxetan ... Arrakasta horrek preseski behartu ditu galdezketatzerat, zer itxura eta zer mezu behar zuen Oalentzerok bideratu, ez bilakatzeko euskaldunen edo euskal Bizar Xuria, bainan bai, personai horrek duen egin beharra betetzeko hemen.

Oalentzeroren ituna

Elkarteak hortarako definitu du Oalentzeroren Ituna. Huntan, personaiaren jantziak, hunek lehenesten duen hizkuntza (euskara), duen izaera eta hunen agerpenaren inguruko xehetasunak zehazten dira, atxikiz oihaneko gizonaren itxura eta berarekin dakarren misterioa. Itunean azaltzen da ere, hunen errezebitzeko egin behar diren indarrak, baserritarrez jauntzi, kantuak ikasi eta opariak trukatu.

Itun hortan argiki erakusten da ez dela Euskal Herriko Bizar Xuria eta huni lotua den kontsumo gizartearren sustatzeko, ez dela hor eguberriko oparien ekartzeko bakarrik.

Oalentzeroren egin behar nagusia da mezu baten hedatzea, neguburuaren (neguko solstizioaren) gaiari lotua den mezua : egunak gaua garaituko duela, hots argiak ilunari gaina hartuko duelako esperantxazko mezu xumea. Mezu hori ez da noizbaiteko tradizio batena bainan oraikoa, betikoa, baserri munduan eta berdin errexkiago hiri gune garaikidean bere sentsua aurkitzen duena.

Gogoetetarik obretarat

Ituna da elkarteak dituen helburuen betetzeko oinarria. Horietarik garrantzitsuena delarik Oalentzeroren figuraren hedatzea egin ahala, jada emendatzen ari diren galdeer erantzunez. Galde horiek ainitzak dira, bainan batez ere eskoletarik heldu dira eta beraz alde pedagogikoa ere daukate. Hortako ere, Euskal Kultur Erakundearekin partaidetzan, hunen webgunean, orri batzu ari gira sartzen, ituna, argazki, kantu eta kontaktuekin. Elkarteak dei egiten du Oalentzero guzieri taldearen juntatzeko eta Oalentzero egin nahi duten guzieri.

Oalentzeroren lagunak elkartea

Aitzol SALABERRIA : 06 30 51 05 14

Guillaume IRIGOYEN : 06 50 45 75 60

Jean Claude MALIARIN : 06 84 17 31 40

www.olentzeroren-lagunak.eu

kontaktua@olentzeroren-lagunak.eu

Olentzeroren Lagunak

L'association Olentzeroren Lagunak est née il y a trois mois réunissant des personnes qui mettent en œuvre cette tradition en Pays Basque Nord. La tradition d'Olentzero a pris ces dernières années un nouvel essor et les membres de l'association ont à cœur de partager leur expérience, de soutenir et d'accompagner ce développement dans l'esprit d'Olentzero.

Les membres sont essentiellement ceux qui portent le personnage du charbonnier en Iparralde. Ils sont de plus en plus demandés au-delà des Ikastola par les écoles bilingues publiques et privées, mais aussi par les comités d'entreprise, maisons de retraite Ce succès les a obligés à se demander quelle image et quel message Olentzero devait véhiculer, pour ne pas devenir le Père Noël basque ou des Basques, mais pour remplir convenablement son rôle.

Charte d'Olentzero

L'association a tout d'abord défini une charte. Dans celle-ci figurent les indications concernant la tenue, la langue (l'euskara), le comportement que doit avoir Olentzero, ainsi que sa façon d'apparaître en public tout en gardant son allure d'homme des bois auréolé d'un certain mystère. La Charte signale également ce que doivent accomplir ceux qui le reçoivent, par exemple s'habiller en conséquence, apprendre ses chants, échanger des cadeaux Il y est spécifié de façon claire qu'Olentzero n'est pas celui qui apporte les cadeaux de Noël dans le sillage de la société de consommation, mais le porteur d'un message, le message du solstice d'hiver : le jour reprendra le dessus sur la nuit, bref la lumière vaincra l'obscurité, un message d'espérance simple que l'on peut décliner sur différents thèmes liés à la nature ou à tous les problèmes de société. Ce message n'est pas celui d'une tradition figée, il est contemporain, voire intemporel, adapté au monde rural et urbain.

La charte est la base de l'association, pour accomplir les buts qu'elle s'est fixée. L'un des plus importants est de multiplier la présence d'Olentzero, en répondant aux demandes déjà croissantes. Elles émanent essentiellement des écoles et revêtent donc un aspect pédagogique. C'est pourquoi, en collaboration et l'appui de l'Institut Culturel Basque, l'association développe sur son site web quelques pages pour informer les écoles et personnes intéressées. L'association invite tous ceux qui assurent le rôle d'Olentzero et aussi tous les candidats intéressés à la rejoindre.

Olentzeroren lagunak elkartea

Aitzol SALABERRIA : 06 30 51 05 14
Guillaume IRIGOYEN : 06 50 45 75 60
Jean Claude MALIARIN : 06 84 17 31 40

www.olentzeroren.lagunak.eu
kontaktua@olentzeroren.lagunak.eu